

artikulu nabarmenak artículos destacados

martxoa/marzo



PÉREZ CAMPOS, Ana Isabel. Política comunitaria europea de empleo juvenil. *Revista del Ministerio de Empleo y Seguridad Social*, Madrid: Ministerio de Empleo y Seguridad Social, 2015, nº 113., pp. 13-38. ISSN 2174-7504.

Gazteen langabeziari aurre egiteko asmoz Europar Batasunak hainbat ekimen jarri ditu abian: "Gazteak Mugimenduan", "Gazteen Aukeren Aldeko Ekimena" edo "Gazte Bermea". Azken honen helburua hauxe bermatzea da: enplegu-zerbitzu publikoek gazteei enplegua topatzen laguntzea edo lan-merkatutako konpetentziak eskuratzea, kontuan izanik, betiere, gazte-taldeak ez direla multzo homogeneoak. Europako Gizarte Funtzak laguntzen dio diruz ekimen horri, eta lan-merkatuan eragiteko politika aktibo batek babestu behar du. Gazte Bermearenaz gainera, Batasunak kalitatezko praktikaldiak bultzatzen ditu eta Ikaskuntzen Prestakuntzarako Aliantza Europarra sortzeko pausuak eman ditu, lanbide-heziketarekiko jarrerak aldatze aldera. Horri guztiari lotuta, lan-mugikortasunaren eta mugikortasun geografikoaren aldeko egitasmoa aipatu behar da, oraindik bete-betean ez dabilen EURES atariaren bitartez.



CÁCERES ZAPATERO, María Dolores eta Enrique MORALES CORRAL. [Juventud hiperconectada. Comunicación y sociabilidad virtual. Estudio de caso sobre desconexión de medios durante 24 horas en jóvenes universitarios españoles.](#) *Anuario Electrónico de Estudios de Comunicación Social* [Linean = en línea]. Trujillo, Venezuela: *Universidad de los Andes* Departamento de Comunicación Social (Grupo de Investigación Comunicación, Cultura y Sociedad) de la ULA Táchira y el Laboratorio de Investigación Educativa Simón Rodríguez (LIESR) de la ULA Trujillo, vol. 7, nº 2, julio-diciembre, 2014. ISSN 1856-9536

Artikuluak ikerketa baten berri ematen digu: gazte-talde batek 24 orduan hedabidetara jo barik bizi behar du. Emaitzek erakutsitako gogoan, hainbatentzat ataza zail eta gogorra izan da, sentsazio eta sentipen ezkorrek eragin dituenak, bakartzea eta inkomunikazioa, frustrazioa, ezintasuna eta urduritasuna. Beste batzuentzat, aldiz, eskarmentua anibalentea gertatu da: batetik, bakea sentitu dute, eta, bestetik, estutasuna. Loturirik ezak aurrez aurreko harremanak bultzatzen ditu, kontzentrazioari mesede egiten dio eta bakarkako lanean jarduteko aukera sortzen du. Esperientziaren balorazioa, erreparoa gorabehera, balekoa izan da, medioek sortzen duten mendekotasunaz jabetzen eta nork bere burua hobeto ezagutzen laguntzen du. Mundu zabalean egindako beste ikerketa batzuek azaldukotako berresten du lan honek



ORTEGA NUERE, Cristia, Iurre LAZCANO QUINTANA eta María Manuel BAPTISTA. [Espacios de ocio para jóvenes: de la monitorización a la autogestión.](#) *Pedagogía social. Revista interuniversitaria*. [linean = en línea]. Murcia: Área de Pedagogía Social, Universidad de Murcia, 2015, nº 25, pp. 69-89.. ISSN 1139-1723

Gazteen bizitzako ardatz-gune diren aisiarako hiru espazio-mota aztertzen ditu ikerketa honek:
Euskal Herriko gune monitorizatuak (gaztelekuak), berezkoak (gaztetxeak) eta autokudeatuak (lokalak). Monitorizatuak enpresek kudeatu ohi dituzte, teknikarien bitartez; jarduera planifikatuak baliatzen dituzte, administrazioak kontrolatuta daude eta udalerraren arabera gazteen parte-hartzea askotarikoa da, eta berau normalean 18 urte bete bitartekoa izaten da. Gaztetxeek barrutiko antolamendua eta kudeaketa dituzte ezaugarritzat; udalek zenbaitetan hartzen dute parte; gazteentzako bilgune eta kultura eta aisia antolatzeko modua dira. Lokalak, berriz, giza harremanak estutzeko espazioak dira, norberaren identitatea eratzekoak, eta bertako funtzionamendua erabakitzeko gazteek eurek sortutako arauak dira oinarri.